

Zenbakiak eta letrak. Historia arloko lanak *Uztaro* aldizkarian

Mikel Aizpuru Murua
UEUko kidea eta UPV/EHUko irakaslea

Sarrera

Orrialde hauen helburua *Uztaro* aldizkarian Historia jakintza-arloak izan duen tokia aztertzea eta neurtzea da. Udako Euskal Unibertsitatearen Historia Sailak zerikusi garrantzitsua izan zuen *Uztaroren* sorreran, bera izan zelako *Historia eta Giza Zientzien Urtekariaren* bultzatzailea eta *Uztaro* izan delako aldizkari horren jarraipena. Gainera, Historia Saileko kideek lan egin dute etengabe bai Erredakzio Kontseiluan (ni neuk, Iban Zalduak, Pruden Gartziak eta Karmele Artetxek), bai eta Batzorde Zientifikoan ere (Joseba Agirreazkuenagaren bitartez). Ez da harrizkoa, beraz, *Uztarok* orrialde ugari eskaintzea Historiari; baina orain arte ez da egin ekarpen horren balorazio zehatzik, eta horretarako aitzakia egokia izan daiteke *Uztarok* 100. zenbakia kaleratzea.

Analisi bibliometricoa erabiliko dugu azterketan. Alde batetik, argitaratutako lanen kopurua handia denez, hurbiltze mota hori da egokiena, eta, bestetik, *Uztaroren* diziplinarteko izaerak asko zailtzen du azterketa kualitatiboa. Izan ere, aldizkari zientifikoan azterketak egin direnean, abiapuntu jakin bat ezarrita egin izan da miaketa, argitalpen hura diziplina bakar baten eztabaida eta bilakaeraren gune esanguratsua delakoan, alegia. Ez da hori *Uztaroren* kasua; euskara hutsez argitaratutako lan zientifikoak biltzea baita haren ezaugarri nabarmenena. Bestalde, *Uztaron* argitaratutako lanek, Historia arloan behinik behin, beste aldizkari batzuetan eta beste hizkuntza batzuetan argitaratutako artikuluekin aritzen dira «solasean», bakoitza bere garai eta espezialitatekoekin, eta nekez ezagut daiteke diziplina bateko bilakaera *Uztaro* bakarrik aintzat hartuta. Gure jakintza-arloaren kasuan, gainera, 2003. urtean, berrikuntza garrantzitsu bat gertatu zen: *Kondaira* aldizkari digitala sortu zen (egungo www.kondaira.eus) eta bertara bideratu zen euskarazko produkzio historiografikoaren zati nabarmen bat.


Azterketa bibliometrico kuantitatiboak aukera ematen digu aztertzeko ezagutzaren espezializazio-prozesua nola gorpuztu den *Uztaroren* kasuan eta zer-nolako heldutasun-maila lortu duen komunitate zientifiko jakin batek. Horretarako,

betiere kontuan izan behar dugu jakintza-arlo bakoitzak bere ohitura eta ezaugarriak dituela eta baten azterketak lortutako ondorioak ezin direla besteetara zabaldu zuzen-zuzenean.

1. Historiako artikulua *Uztaron*

Zer da Historia, diziplina zientifiko akademikotzat hartuta? Badugu erantzun ziniko samarra, baina erraza eta zehatza dena aldi berean: historialariok Historiatzat hartzen dugunak osatzen du corpus historiografikoa. *Uztarori* dagokionez, bi irizpide erabili ditut artikulua bat Historia arlotzat hartzeko. Alde batetik, Historia atalean argitaratu direnak, *Uztarok* hasiera-hasieratik bere artikulua jakintza-arloen arabera sailkatu ditu eta. Artikulu horiez gain, bigarren multzo bat ere hartu dugu kontuan: artikulua zehar garatutako azterketan ikuspegi kronologikoak garrantzia duenean, hain zuzen, Zientzia Politikoaren edota Kultura Ikasketen arloko zenbaitzuk. Artikuluak hartu ditugu kontuan, horiek baitira lan zientifikotzat hartzen direnak, baina ez nuke utzi nahi aipatu gabe, *Uztaroren* hasierako zenbakietan, batik bat, Historia Saileko hainbat kidek ahalegin garrantzitsua egin zutela liburuen erreseinak argitaratzeko, benetako kritika bultzatze aldera, gerora jarraipen gutxi izan arren, zoritxarrez.

Aurreko irizpideei jarraituz, honako hauek dira kopuruak: Historiako 101 artikulua argitaratu dira *Uztaron* orain arte, 1990. eta 2016. urteen artean. Ia-ia artikulua bat zenbakiko, nahiz eta nabarmena izan hasierako urteak oparagoak izan zirela azkenekoak baino.



Jatsiera hori, gainera, nabarmenagoa litzateke estuki Historia arloa mugatuko bagina.

2. Aztertutako garai historikoak

Historiaren banaketa klasikoa erabiliko dugu lan horiek sailkatzeko, ñabardura batekin: Aro Garaikidea bitan banatu dugu, 1936. urtea mugari hartuta, garai horri dagokion azterketa-esparrua hobeto zehaztu ahal izateko. Dena den, zenbait kasutan ezinezkoa da banaketa horri zorrotz jarraitzea eta alde batera utzi behar izan ditugu lan horiek.

Historiaurrea	Antzinaroa	Erdi Aroa	Aro Berria	Aro Garaikidea I	Aro Garaikidea II
4	2	2	19	32	40

Ez nago oso ziur banaketa horrek euskal historiografiaren produkzioaren banaketari erantzuten dion edota ezaugarri propioak ote dituen. Baina ez dirudi beste arlo batzuetatik asko aldentzen denik. *Vasconia* aldizkaria (1983-2003) aztertu zuenean Carmelo Landa Montenegrok (2005) honako distribuzio hau aurkitu zuen:

Historiaurrea	Antzinaroa	Erdi Aroa	Aro Berria	Aro Garaikidea (Guztira)
% 0	0,25	5,82	18,22	% 53,16

Bistan da Aro Garaikideak pisu handia duela euskal historiografian eta pisu hori are nabarmenagoa da *Uztaron* Erdi Aroak eta aurreko garaiek pisu testimoniala baino ez dutelako. Historiaurreak, tradizio luzeko jakintza-arloa gurean, badauka bere esparru propioa eta pentsatzekoa da Antzinaroarekin eta Erdi Aroarekin ere gauza bera gertatutako dela.

3. Aztertutako jakintza-arloak

Ez da erraza 100 artikulua sailkatzea arlo tematikoen arabera eta nahiago izan dugu gure lana lau multzo nagusitara mugatzea, lan askok eremu bat baino gehiago jorratzen dituztela jakin arren.

Politika	Ekonomia	Kultura	Gizartea
32	12	31	21

Oso historia «tradizionala» jorratu izan dugu euskal historialariok *Uztaron*. Euskal historiografia berriak zenetik gizarte-historiak eta historia politikoak bereganatu dute gure arreta. *Uztaron*en diziplinartekotasunak eragina izan du kultura-gaien hautaketan, baina oso esanguratsua eta kezagarria da, nire ikerketa-eremua izan ez arren, ia ez egotea Historia postmodernistaren arloko lanik, ez eta apenas emakumeen historia lantzen duenik ere.

4. Jorratutako eremu geografikoa

Eremua	Artikulu kopurua
Euskal Herria (osorik edo zehaztu gabe)	44
Mundua edo Europa	13
Ipar Euskal Herria	8
Bizkaia	7
Nafarroa	6
Araba	5
Frantzia	4
Gipuzkoa	3
Amerikako euskaldunak	3
Espainia	2

Gaztelaniaz idatzitako euskal aldizkarietan ez bezala, *Uztaro* euskaraz idatzita egoteak lagundu du lan orokorrek pisu handiagoa hartzen eta tokiko historia bigarren mailan geratzen. *Vasconiaren* kasuan, esate baterako, artikuluen % 38k bakarrik gainditzen du probintzien arteko langa. Gure kasuan, aldiz, erdia baino gehiago dira eta horietako hainbatek ez dute Euskal Herria ikergaitzat.

5. Egileen produktibitatea

78 egilek idatzi dute *Uztaroko* Historia atalean. Gehienek bakarka idatzi dituzte euren lanak eta zazpi talde-lan daude (binaka idatzitakoak). Ez da horretan ezberdintasunik Historia arloko aldizkariekin; izan ere, horietan egileek ia beti bakarka kaleratzen dituzte euren lanen emaitzak. *Uztaron* bertan, beste gizarte-zientzietatik datozen egileak dira talde-lanak egin dituztenak. Idazle multzo hori lau taldetan bana genezake. Kopururik handienak, 59 lagunek, lan bakarra argitaratu du; 10 idazlek bina lan kaleratu dituzte; lau lagunek hiruna lan plazaratu dituzte eta bost lagunek hiru baino gehiago, artikulua eta liburu-iruzkinak elkartzuz gero.

Egileak produktibitatearen arabera	Artikulu kopurua	Liburu-erreseina kopurua
Kintana, Jurgi	6	1
Aizpuru, Mikel	3	4
Apalategi, Jokin	3	4
Gartzia, Pruden	2	9
Zaldua, Iban	2	6
Itzaina, Xabier	3	
Zabala, Mikel	3	
Agirre, Jaione	2	1
Alvarez, Oscar	2	
Angulo, Alberto	2	1
Aragon, Alvaro	2	
Chueca, Iosu	2	
Gracia, Juan	2	

Jimeno, Roldan	2	
Lamikiz, Xabier	2	
Lopez Adan, Emilio	2	
Mees, Ludger	2	
Rojo, Ekain	2	
Urteaga, Eguzki	2	

Ez da erraza kopuru horiek alderatzea beste azterketa eta aldizkari batzuekin, *Uztaroren* diziplina anitzeko izaerak eta euskarazko produkzioaren berezitasunak zaildu egiten dutelako lan hori. Bi erreferente hartuko ditugu kontuan. Gregorio González Alcaideren taldeak (2008: 60) *Anales de Documentación* aldizkariaren 1998-2007 urteen arteko azterketa bibliometrika egin zuenean, hiru egile talde bereizi zituen. Lehenak egileen % 80,66 biltzen zuen eta horko bakoitzak lan bakarra argitaratu zuen aldizkari hartan; bigarrenak, % 10,80k osatutakoak, bi, eta hirugarrenak, egileen % 4,54 biltzen zuenak, hiru edo gehiago. Gurera ekarrita, lehen taldeak egileen % 75,6 biltzen du, bigarrenak % 15,3 eta hirugarrenak % 8,8. Ez dago hainbesteko alderik bi aldizkarien artean eta dagoena *Uztaroko* historialarien aldekoa dela pentsatu nahi dut, aldizkariarekiko lotura handiagoa erakusten duelako, beste norbaitek aldizkariarekiko morrontza aipa badezake ere.

Bigarren erreferenteak, ordea, oso bestelako kopuru eta portzentajeak erakusten ditu. Aspaldikoa (1926) da Alfred Lotka zientzialari estatubatuarrak formulatutako produktibitate zientifikoaren «banaketa-legea». Lotkaren formulazioa, noski, ez da lege bat, azterketa estatistiko bat baino, eta erabilera handia du bibliometrian. Haren arabera, besteak beste, aldizkari edo zientzia-arlo jakin bateko idazleak hiru multzotan banatzen dira. Multzorik handienak lan bakarra kaleratu duten ekoizle txikiak biltzen ditu. Bigarrenak 2 eta 9 lanen artean argitaratu dituzten ekoizle ertainak biltzen ditu eta hirugarrena 10 lan baino gehiago kaleratu dituzten ekoizle handiek osatzen dute. Gure kasuan, ez genuke ekoizle handi bakar bat ere edukiko *Uztaron*. Jurgi Kintana da gehien hurbiltzen dena produkzio horretara.

6. Egileen jatorri geografikoa

Egileen jatorri geografikoari dagokionez, gehienak Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak dira. Zazpi dira nafarrak eta sei Iparraldekoak.

7. Egileak sexuaren arabera

Emakume gutxi dago euskal historialarien artean. 12 baino ez ditugu zenbatu gure azterketan, % 15,39. Gehienek lan bakarra argitaratu dute. Are esanguratsuagoa da emakumea edo genero-kontuak lantzen dituen lan historiko bakarra argitaratu izana *Uztarok*: Maitane Ostolazak eliza eta emakumeen hezkuntzari eskainitakoa. Honako hauek dira 12 egile horien izenak: Jaione Agirre, Enara Artetxe, Karmele Artetxe, Ianire Castrillo, Eva Díez Paton, Ana Eizagirre, Idoia Fernandez, Aitziber Gorrotxategi, Amelia Hernandez, Elena Martinez, Maitane Ostolaza eta Elena Torregaray.

8. Egileen lan-erakundeak

Lotura estua dago *Uztaroko* Historia lanak plazaratu dituztenen eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean. Egileen erdiak baino gehixeagok, 44k, bertan egiten dute edo egin dute lan; bigarren multzorik handiena irakaskuntza ertainetan lanean ari direnek edota liburutegi, euskaltegi eta abarretan ari direnek osatzen dute, 26 lagun dira guztira. Azken multzoa beste unibertsitate batzuetan ari direnek osatzen dute: Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Mondragon Unibertsitatean eta Euskal Herritik kanpoko Bordeleko Unibertsitatean, Paris IV-Sorbonne-n eta Kataluniako Pompeu Fabran eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan. Esanguratsua da Deustuko Unibertsitatean lan egiten duen ikertzaile bakarrak bidali duela bere lana *Uztarora* eta berez ez da Historia arlokoa. Aipatzekoa da, gainera, bi egileen artean idatzitako lanen kasuan, normalean biak erakunde bereko kideak direla. Komunitate txikia izan arren, oraindik gure barne-mugak gainditu gabe izatearen adibide ezin argiagoak dira.

9. Lanen izaera eta erabilitako erreferentzia bibliografikoen hizkuntza

Ohiko parametroak jorratu ditugu orain arteko azterketa bibliometrikoan. *Uztaroko* Historia arloko artikuluen kopuruak, ordea, beste batzuetan ezinezkoak diren elementuak plazaratzeko aukera ematen digu: erabilitako bibliografia eta lanen izaera.

Azken horretatik hasiko gara. *Uztaro* ez da inoiz definitu ikerketa-aldizkari modura. Bere jaiotzatik Giza eta Gizarte-zientzien aldizkari gisa aurkeztu da eta ikerketa-lanak eta sintesi-lanak kaleratu ditu. Historia arloko artikulua ere bi multzo horietan bana daitezke, edo hirutan nahi bada. Multzorik nabarmenena ikerketek betetzen dute, 67 direlako modu batera edo bestera atal horretan sailka daitezkeen lanak. Horrek esan nahi du gehiago edo gutxiago lehen mailako iturriak erabiltzen dituztela. Aldaketa esanguratsua nabarmentzen da, dena den, hasierako lanetatik azkenekoetara, gero eta gehiago azaltzen baita erabilitako metodologia, lortu nahi diren helburuak, arakatutako iturriak eta jarraitutako bidea artikulua gauzatu ahal izateko. Beste 26 artikulua sintesi-lan modura sailka daitezke, lehen mailako iturririk ez dutelako erabiltzen eta bibliografian aurkitu dutelako iturria. Arlo jakin bati buruzko azalpenak egiteko idatzi dira lan horietako gehienak. Azken 8 lanak hausnarketa historiografikoak dira edo historialari edo intelektual konkretu bati buruzko nekrologikoak.

Ez daukagu erreferentziarik Historia arloko artikuluen banaketa hori erkatzeko eta baloratzeko, *Uztaro* ez baita jakintza-arlo batean espezializatutako aldizkaria, eta are gutxiago, garai jakin batean, baina pentsatzen dugu ondo azaltzen duela euskarazko produkzioaren gabeziak. Jakintza-arlo bakoitzak bere lanaren inguruko hausnarketak eskatzen ditu, definitu gabeko maiztasunarekin bada ere; eta *Uztarori* dagokionez, hausnarketa horiek, gutxi izateaz gain, XX. mendeko azken hamarkadan egin ziren. XXI. mendean, aldiz, euskal historialariek ez dute ikusi horrelako lanen beharrik, ez behintzat *Uztaron*, ezta euskaraz ere, dakigunaren arabera.

Bibliografian erabilitako hizkuntzak ere gutxitan aztertu ditu bibliometriak; alabaina gai hori garrantzitsua da aldizkariaren izaera bera definitzeko. Izan ere, usu, aldizkariaren nazioarteko izaera bi eratara defini daiteke: ingelesa izateagatik idazlanen hizkuntza edota nazioarteko datu-baseetan onartuta dagoelako aldizkaria. Bistan da *Uztarok* inoiz ez duela beteko lehen baldintza, euskarazko aldizkaria izatea delako bere sortzeko eta bizirik eusteko arrazoia. Egunen batean, ordea, nazioarteko datu-baseetan sartu nahiko balu, beste bide batzuk erabili beharko lituzke. Horietako bat da, hain zuzen ere, aldizkariako artikuluen bibliografia nazioartekoa dela frogatzea. Horacio Capel-en arabera (2001):

Estimo que esa práctica de utilizar y citar trabajos escritos en diferentes lenguas debe ser considerada como esencial para establecer criterios de calidad de una revista, o incluso de toda publicación científica. En cualquier campo de la ciencia, pero en particular en el de las humanidades y las ciencias sociales, ese criterio es especialmente relevante, ya que refleja la apertura intelectual del autor y el respeto a otras tradiciones.


Are gehiago, haren esanetan, hizkuntza bakarrean idatzitako bibliografia erabiltzeko ohitura —arrunta egile anglosaxoien artean— baztertu eta gutxietsi egin behar da gizarte-zientzietan, eta tokiko lan gisa kalifikatu beharko lirateke artikuluek. Zientzialari batek gai izan behar du hainbat hizkuntzatan irakurtzeko eta kultura-tradizio desberdinetan sortutako lanak erabiltzeko. Baldintza hori betez gero, hizkuntza bakarra erabiltzen dutenenak baino aberatsagoak izango dira ikerketak.

Zein da *Uztaroren* egoera auzi honetan eta bereziki Historiako artikuluei dagokienez? Kontuan hartu behar dugu zenbait artikuluk bibliografiarik ez dutenez, ezin izan ditugula sailkatu eta ondoko laukian sartu.

Erabilitako hizkuntzak bibliografian	Artikulu kopurua
Euskara bakarrik	1
Euskara eta frantsesa	1
Euskara eta ingelesa	1
Euskara, frantsesa eta ingelesa	5
Euskara, gaztelania eta frantsesa	6
Euskara, gaztelania eta ingelesa	3
Euskara, frantsesa, ingelesa eta gaztelania	11
Euskara eta gaztelania	17
Gaztelania bakarrik	17
Gaztelania eta frantsesa	2
Gaztelania eta ingelesa	2
Gaztelania, frantsesa eta ingelesa	9
Frantsesa bakarrik	1
Alemana ere erabiltzen dutenak	4
Italiera ere erabiltzen dutenak	6
Katalana ere erabiltzen dutenak	4

Ikusi dugu ikerketa-lanak direla nagusi gure produkzioan eta lan gehienen ikerketa-esparrua Euskal Herria dela. Beraz, ez da harrizkeoa gaztelania eta frantsesa izatea bibliografian gehien azaltzen diren hizkuntzak. Lan bakanak dira gaztelaniazko bibliografiarik aipatzen ez dutenak, Ipar Euskal Herria, Frantzia edo gai unibertsalak lantzen dituztelako, oro har. Nabarmena da gaztelaniaren nagusitasun linguistiko eta historiografikoa: 17 lanetan hizkuntza bakarra izateaz gain, beste artikuluetan bibliografia gehiena hizkuntza horretan dagoelako.

Dena den, aipatu beharreko beste bi datu daude: alde batetik, 57 artikulutan —erditik gora— gutxienez euskaraz idatzitako erreferentziaren bat dago, dela iturri moduan, dela babes-bibliografia moduan:



Bigarrena, azkeneko urteetan gero eta euskarazko erreferentzia gehiago topa daitezke eta bibliografia bera ere zabalagoa da, gainera hiru edo lau hizkuntzatan. Edozein modutan, zera azpimarratu behar da, Historiaren definizio klasikora makurtzen diren lanak direla aniztasun urriena erakusten dutenak eta, aldiz, Zientzia Politikora hurbiltzen direnak, aberastasun gehien dutenak.

Badago bibliografiarekin lotutako azken puntu bat, *Uztaroren* beraren erabilera historialarien artean. Ez dira asko aurkitu ditugun erreferentziak, eta normala ere bada oso gai desberdinak jorratu direlako aldizkarian eta gutxitan egon delako jarraitutasunik denboran zehar egile edo gaietara dagokienez. 1997an aurkitu dugu lehen erreferentzia, *Uztaro* argitaratzen hasi eta handik zazpi urtera. Autoaipua izan zen eta besteren bat ere egon da. Guztira *Uztaroren* 7 erreferentzia aurkitu ditugu aldizkarian bertan.

10. Ondorioak

Uztarok ahalegin handia egin du unibertsitatearen eremuan euskara normalizatzeko aldera, baita Historian ere. Aldizkariaren 26 urteetan, hainbat belaunalditako ikertzaile ugari aukeratu dute gure aldizkaria euren lan, ikerketa eta hausnarketak euskaraz plazaratzeko. Erabaki horrek militantzia puntu bat izan du. Hasieran, hizkuntzaren normalizazioaren izenean idazten zen sarritan; azken urteetan, berriz, Giza eta Gizarte Zientzien uniformizatzeko linguistikoaren aurka, baina ezin da ukatu *Uztarok* jakin duela eskaintzen aterpe eroso eta txukuna. Hizkuntza-zuzentzaileek eta arlo bakoitzeko adituek lagundu digute gure lanak hobetzen eta Nekane Intxaurtzak eskaintako harreman beroak goxotu du argitalpen bakoitzak sortzen duen tentsioa. Guztion artean lortu dugu inguru adeitsua unibertsitate munduan euskaraz lan egin nahi dutenentzat.

Horren guztiaren lekuko da 78 lagunek aukeratu izana *Uztaro* Historiarekin zuzenean edo zeharka lotutako lanak argitaratzeko. Gauza bakoitzak bere neurria eduki arren, ez dago pertsona horietako bakoitzak Historia euskaraz lantzeko egindako ahalegina eskertzeko modurik. Aitortu beharko litzaioke bere balioa eta gaur egun ebaluazio-prozesuetan duena baino balorazio hobea beharko luke. Lan horiek gai eta eremu ugari ikertu dituzte, era gero eta profesionalagoan eta *Uztarok* lanabes garrantzitsua izan beharko luke historialari euskaldunen hurrengo belaunaldientzat.

Historiak toki garrantzitsua bete arren *Uztaroren* orrialdeetan, nabarmena da ez dela euskal historialarien erreferentzia bakarra eta are gutxiago, nagusia. Horren adierazgarria da ikertzaile askok —euskaraz jakin arren eta euren eskolak euskaraz eman arren— bertan inoiz ez argitaratzea eta egile gehienek artikulu bakarra kaleratu izana. *Uztaron* pisu handia duen beste zientzia batekin konparatuz, Psikologiarekin alegia (Artetxe, 2006), agerian geratzen da Historiako egileek artikuluen argitalpen-lekua dibertsifikatu egiten dutela; Psikologian, aldiz, *Uztarok* garrantzi handia du egileen euskarazko curriculumean.

Hainbat elementu hartu behar ditugu kontuan dibertsifikazio hori azaltzeko. Historiaren arloan, orain arte aldizkariak ez dute izan hainbesteko garrantzirik; liburuek eta liburu-atalek, ordea, pisu esanguratsua zuten gure lanen zabalkundean. Azken urteetan, ebaluazio-kultura hedatu den neurrian (Tarango, 2012), aldizkariak ere irabazi dute pisua, baina aldi berean, ebaluazio horrek atzerriko aldizkariak lehenesten dituenez, ez du bultzatu euskaraz argitaratzera, nahiz eta *Uztarok* ahalegin handia egin nazioarteko estandar akademikoak betetzeko. Beste alde batetik, espezializazio kontua dago tartean. *Uztaro* diziplinarteko aldizkaria da eta, kontrakoa esan arren maiz, ikertzaile gehienok nahiago dugu geure arloko aldizkarietara zuzendu, horietan irakurle gehiago eta aipu gehiago lortzeko itxaropenarekin. Pentsa genezakeen *Kondairak* har zezakeela *Uztaroren* tokia Historiaren eremuetan, baina oraindik ez da horrelakorik gertatu. Ezin ahaztu, azkenik, aldizkari bat (Lozano 1993; Soto, 2013) proiektu bat partekatzen duten intelektual talde baten egitasmoa dela, une eta baldintza zehatz batzuetan sortutakoa eta helburu eta asmo jakinen zerbitzura. Era berean, belaunaldi berrientzat zailagoa da lehenagoko proiektuetan beren neurriko tokia aurkitzea eta eremu berriak bilatzeko edo sortzeko joera dute, *Uztaro* sortu genuenok 1990. urtean egin genuen moduan.

Bibliografia

- Artetxe Sánchez, K. (2006): «Psikologiako artikuluen azterketa Uztaro aldizkaria oinarri harturik», *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **56**, 31-50.
- Capel Sáez, H.; Rodrigues Soares, P.R. eta Ueda, V. (2001): «La revista Scripta Nova, 1997-2001», *Scripta Nova: Revista electrónica de geografía y ciencias sociales*, **5**.
- Casals Costa, V.; Jori, G.; Bonastra, Q.; Capel Sáez, H. eta Bouza Vila, J. (2012): «Scripta Nova en 2012, la edición de revistas científicas y el productivismo en la Universidad», *Scripta Nova: Revista electrónica de geografía y ciencias sociales*, **16**.
- González Alcaide, G.; Alonso Arroyo, A.; Valderrama Zurián, J.C. eta Aleixandre Benavent, R. (2008): «Una década de investigaciones en Anales de Documentación (1998-2007): aproximación bibliométrica y temática», *Anales de documentación: Revista de biblioteconomía y documentación*, **11**, 57-78.
- Landa Montenegro, C. (2005): «Revista Vasconia, cantera de la nueva historiografía vasca (1983-2003)», *Vasconia: Cuadernos de Historia-Geografía*, **34**, 481-633.
- Lozano Bartolozzi, P. (1993): «Otros estudios, trabajos y aspectos de la revista Príncipe de Viana», *Príncipe de Viana*, **54**, 200, 703-730.
- Mateo Marquina, M.E. eta Osca Lluch, M.J. (2003): «Difusión de las revistas españolas de ciencias sociales y humanidades: acercamiento bibliométrico», *Revista general de información y documentación*, **13 (1)**, 115-132.
- Soto Arango, D.E. eta Bernal Villate, S.L. (2013): «Revista Historia de la Educación Latinoamericana, líder en la investigación histórico-educativa 1998-2013», *Revista Historia de la Educación Latinoamericana*, **15**, 20, 45-70.
- Tarango Ortiz, J. eta Ruiz Domínguez, A. (2012): «Revistas periféricas de generación interna en la Universidad Autónoma de Chihuahua, México: identificación de indicadores para la calidad», *Revista general de información y documentación*, **22 (1)**, 367-394.